

Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2231

AGINDUA, 2009ko martxoaren 17koa, Kultura sailburuarena, Bergarako Irizar jauregiko lorategia (Gipuzkoa) monumentu kategoriako kultura-ondasun deklaratzeko duena, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Bergarako Irizar jauregiko lorategiak kultura aldetik duen interesa ikusita eta haren kultura-balioan oinarrituta, eta indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituz, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak lorategia Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedientearen hasiera eskatzea erabaki zuen, 2007ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez (uztailaren 2ko EHAA, 126. zk.).

Espediente horren administrazio-izapidean, lehen aipaturiko 7/1990 Legearen 17. eta 11.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri zen espediente, eta interesdunei entzuteko epea ireki zen.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren, Bergarako Udalak alegazio-idazkia aurkeztu zuen. Hona zertan datzan idazki hori:

1.– Historia aldetik, Irizar jauregiaren itxitura beti izan da eremu publikoa eta pribatua bereizteko harrizko horma bat, kalea taxutzeko balio zuena. Oraingo itxitura, ordea, 1980. urtearen ingurukoa da. Hori dela eta, oraingo eiteak ez luke zertan aurrekoaren berdin-berdina izan.

2.– Etxean hilobiak daudela esatea nahasgarria da, zeren benetan esan nahi dena baita antzina eliza bera etxearen zati bat zela eta, ondorioz, elizako hilobiak etxearen baitako elementutzat jotzen zirela. Horrek ez du esan nahi jauregian edo lorategian hilobiak daudenik.

Horrenbestez, deskribapenean argi eta garbi esan beharko litzateke ez Irizar jauregian ez eta haren ingurunean ere ez dagoela hilobirik.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2231

ORDEN de 17 de marzo de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el jardín del palacio Irizar, sito en Bergara (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del jardín del palacio Irizar, sito en Bergara (Gipuzkoa), fundamentado su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 30 de mayo de 2007, publicada en BOPV n.º 126, de 2 de julio, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también se concedió audiencia a los interesados.

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, el Ayuntamiento de Bergara presentó escrito de alegaciones:

1.– Que históricamente el cierre del palacio Irizar ha sido un muro de piedra que servía para diferenciar el espacio público y privado y configurar la calle, pero que el actual cierre responde a una intervención entorno al año 1980, por lo que se solicita que su aspecto actual no tenga por qué ser conservado con exactitud.

2.– Que la expresión referida a que en la casa hay tumbas produce confusión, ya que esta circunstancia se refiere a que en el pasado se consideraba la propia iglesia como una prolongación de la casa y, por ello, las sepulturas ubicadas en la iglesia se consideraban unidas a la propia casa. Sin embargo, ello no significa que existan tumbas en el palacio o el jardín.

Se solicita que en la descripción quede claro que en el palacio Irizar y en su entorno no hay sepulturas.

Alegazioak ikusita, esan beharra dago, Irizar jauregi-ko lorategiaren itxituraren balioari dagokionez, jauregia eta lorategia bereizteko elementutzat hartu behar dela soil-soilik, eta ez berezko balioa duen ondasun gisa. «Urbanismo y arquitectura civil en Bergara» liburuan, aurreko itxituraren argazki bat ikus daiteke, horma tan-kerakoa argiro. Oraingo itxitura, ordea, ez da zaharra, eta ez dago zertan kontserbatu dagoen-dagoenean.

Deskribapenean dagoen hilobien aipamena, bestalde, akats bat da.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da bi alegazioak baiestea; alegia, I. eranskinean, gaztelaniazko testuan, «actual» hitza kentzea, bai eta II. eranskinaren lehenengo lerroaldeko «eta hilobiak» kentzea ere, eta, horrekin batera, honako esaldi hau aldatzea «Lorategia harri-akaberako plataforman dago eta itxitura bat du: karela, burdina-hesia eta dekorazio-bolak dituzten zutabeak» eta horren ordeaz hauxe jarriko da «Lorategia harri-akaberako plataforman dago eta aurreko itxitura ordezen duen itxitura bat du: karela, burdina-hesia eta dekorazio-bolak dituzten zutabeak».

Edonola ere den, baimen-araubidea Foru Aldundiaren mende egongo da, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 23., 31. eta 32. artikuluetan dioenaren arabera.

Horregatik guztiagatik, aipaturiko Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena aztertu ondoren eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamenez, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bergarako Irizar jauregi-ko lorategia (Gipuzkoa) Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean inskribatzea, monumentu kategoriako kultura-ondasun gisa.

Bigarrena.– Ondasun horren deskribapen formal egitea, agindu honen I. eranskinean agertzen den mugaketaren arabera eta II. eranskinean adierazitako eran.

Hirugarrena.– Agindu honen berri ematea Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoak betetzeko.

Laugarrena.– Ondasuna babesteko eskaria egitea Bergarako Udalarari, udal hirigintza-planeamenduan sartuz.

Bosgarrena.– Agindu honen berri ematea interesdunei, bai eta Bergarako Udalarari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuari eta Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ere.

Ante estas alegaciones cabe señalar que, respecto al valor de cierre del jardín del palacio Irizar, éste debe entenderse como elemento que sirve para delimitar el Palacio y jardín, no como un elemento de valor en sí mismo. En la publicación «Urbanismo y arquitectura civil en Bergara», se puede observar una fotografía del cierre anterior, con un carácter claramente murario. El cierre actual es de factura reciente y no tiene por qué conservarse estrictamente en su estado actual.

De otra parte, en cuanto a la cita a las sepulturas que se realiza en la descripción, se trata de un error.

Por todo ello, procede estimar ambas alegaciones en el sentido de eliminar la palabra «actual» del anexo I y las palabras «y sepulturas» del primer párrafo del anexo II. Asimismo, se procede a la modificación de la frase: «El jardín está sobre una plataforma con acabado de piedra y cercado por una tapia, con antepecho, verja y pilares con bolas decorativas» por la frase: «El jardín está sobre una plataforma con acabado de piedra y cercado por una tapia, con antepecho, verja y pilares con bolas decorativas que sustituye a un cierre murario anterior».

No obstante, los usos y el régimen de autorizaciones quedará sujeto a la tutela de la Diputación Foral según lo establecido en los artículos 23, 31 y 32 de la Ley 7/1990, del Patrimonio cultural Vasco.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir el jardín del palacio Irizar, sito en Bergara (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Tercero.– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Bergara para que proceda a la protección de dicho espacio contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Bergara, a los Departamentos de Cultura y Euskera y Ordenación y Promoción Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeari buruzko agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, aurretik bere aurka aukerako beraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernu Kontseiluari hilabeteko epean, edo bestela zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 17a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión del bien en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de marzo de 2009.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketa-eremua.

Bi eremu mugatzen dira; alde batetik, lorategia bera, eta, bestetik, lorategi-ingurua, hots, jauregia eta bere antzinako baratzea. Gaur egun, jauregia eta baratzea oraindik lotuta daude.

Horrela, mugaketa-eremua lorategiaren beraren itxurak eta mendebaldeko antzinako baratzak zehazten dute.

b) Mugaketaren arrazoiak.

Mugaketa hau egin da, beharrezkotzat jo baita lorategiaren eta hari lotutako jauregiaren beraren ingurumen-, ikuste- eta paisaia-balioak zaintzea. Lorategia hiri-ingurunean dago, eta baratzaren, lorategiaren eta jauregiaren arteko loturak hiri-bilbea aberastu egiten du. Horretaz gain, jauregiaren fatxada kaleko egiturekin lotzen du. Ingurunea mugatzea beharrezkoa da ondasuna behar bezala babesteko eta hari balioa emateko, eta, mugaketa horren bidez, lorategi-esparruko inguruak babesten dira. Helburua inguruaz gozatzea eta inguruari balioa ematea da.

Hori dela-eta, lorategia ez ezik, horren ondoko inguru ere sartzen da mugaketa honetan.

ANEXO I

Delimitación

a) Ámbito de la delimitación.

La delimitación incluye por un lado, el propio jardín en sí y, por otro, el entorno próximo formado por el palacio y su antigua huerta con la que mantiene una relación.

Así, el área de la delimitación queda definida por el cierre del propio jardín y de la antigua huerta del lateral oeste.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, visuales y paisajísticos del entorno del jardín y del propio palacio con el que mantiene una vinculación. El jardín mantiene su presencia sobre el entorno urbano y la relación huerta-jardín-palacio enriquece la trama urbana y vincula las fachadas del palacio a los espacios intermedios entre las calles y el palacio. La delimitación del entorno que resulta necesario para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes que enmarcan el recinto ajardinado, a fin de posibilitar su disfrute y puesta en valor.

Por ello, esta delimitación incluye no sólo el jardín propiamente dicho, sino también el entorno inmediato relacionado con el mismo.

II. ERANSKINA

Deskribapena

Irizar Jauregia XVII. mendearen bigarren erdialdean jaso zuten antzinagoko etxetzar bat zegoen lekuan. Aipatutako etxetzarrak baratzea eta hilobiak zituen eta baratzearen zati bat lorategi bihurtu zuten. Eraldaketa horretarako, eraikinari landa-izaera kendu eta hiri-ingurunera egokitu zuten. Kalera ematen duten fatxadak hormaz egin zituzten eta bista-zortasuna ere kontuan hartu zuten. Irizar Jauregia lorategiarekin lotuta dago oraindik eta lorategia jauregiaren ekialdeko aurreko bistan dago, sarrera-kotaren azpiko mailan eta hego-mendebalderantz orientatuta. Jauregitik lorategira joateko, ate bat zeharkatu eta eskailerak jaitsi behar dira. Behean lorategia eta ataria lotzen dituen beste ate bat dago. Lorategia leku egokian dago, tokia eguzkitsua eta zabala baita fatxadaren atzeraemangunea dela-eta. Lorategira ematen duen fatxadan eta sarbide-oinplanoaren kotaren azpian bi leiho daude sotoa aireztatzeko.

Lorategia harri-akaberako plataforman dago eta itxitura bat du: karela, burdina-hesia eta dekorazio-bolak dituzten zutabeak. Aipatzekoa da hiri-bilbean duen kokapena, bi ardatz ebakitzen baititu: Barrenkalea eta antzinako Etxetxueta bidea. Lorategiaren gaineko plataforma angeluzuzena da eta eraikinaren oinplanoa indartzeko du. Lorategiak diseinu berdina du, baina txikiagoa da. Lorategiak ere diseinu soilak, apaingarririk gabekoak eta garbiak ditu, eta eraikinaren kalitatezko akaberak. Plataforma angeluzuzenaren gainean dago lorategiaren oinplanoa, eta hori ere angeluzuzena da. Hartzeko ertz bat du, eta baita forma ugartan zatitutako karratua ere, erdialdea inguratzen. Eraikinaren albo bateko lorategi karratu horiek XVI. mendean geroztik egin ohi ziren, eta XVII. mendetik aurrera, Serlio, Vredeman de Vries-en grabatuen irizpideak jarraitzen hasi ziren. Lorategia ez zen sarbide-aurrea, egonleku pribatua baizik, eta bista-zortasunak soilik egiten dute kalearen zati.

Gaur egungo landarediak, hots, erramu kimatuak, ezipelak, zuhaixkak eta denboraldiko loreko landareak, ez du baliorik, baina pizkunde-tipologiaren adierazle da. XVI. mendean, horrelako lorategietan santolina-heskaiek edo erromeroak landatzen ziren; XVII. mendetik aurrera, berriz, Europa osoan ezipela erabiltzen hasi ziren. Erdialdean eta leku garrantzitsuetan zuhaizka edo zuhaitz txikiak landatu eta apaingarri gisa erabiltzeko kimatzen zituzten. Barnealdean berriz, loreak landatzen zituzten. Karratuen eta mintegiaren ertzak egiteko egurra edo adreilua erabiltzen zuten; zoruak, berriz, hondarrezkoak edo adreiluzkoak ziren.

ANEXO II

Descripción

El Palacio Irizar, tuvo su origen en un antiguo caseón con huerta que fue reedificado durante la segunda mitad del siglo XVII transformando entonces parte de la huerta en jardín. Se transforma parte de la huerta en jardín cambiando la escala rural al entorno urbano, se componen las fachadas a la calle con muros y hay una relación de vistas y servidumbres. El jardín permanece vinculado al Palacio Irizar y está orientado al sur-oeste en un nivel por debajo de la cota de acceso del Palacio situado en el alzado este. Una puerta con escaleras al exterior relaciona el Palacio con el jardín y otra puerta rebajada a cota de acceso comunica el jardín con el zaguán. La elección del lugar del jardín es apropiada, el sitio es soleado y amplio por el retranqueo de la fachada. En la fachada hacia el jardín y por debajo de la cota de planta de acceso hay dos ventanas para la ventilación de la bodega.

El jardín está sobre una plataforma con acabado de piedra y cercado por una tapia, con antepecho, verja y pilares con bolas decorativas que sustituye a un cierre murario anterior. La ubicación en la trama es significativa, está en el corte de dos ejes: en la calle Barrenkalea y el antiguo camino de Etxetxueta. La plataforma rectangular elevada del jardín refuerza la planta del edificio y la traza del jardín repite la figura a menor escala. La traza del jardín repite el modelo de líneas sencillas y volúmenes sin ornamentación, rotundos y con acabados de calidad del edificio. Sobre la plataforma rectangular se eleva la planta también rectangular del jardín. Ésta, perfilada por un borde de piedra contiene un cuadrado despiezado con formas enmarcando el centro. Estos trazados de cuadros ajardinados en el lateral de la edificación se hacían habitualmente desde el siglo XVI siguiendo las pautas de los grabados de Serlio y de Vredeman de Vries a partir del siglo XVII. El jardín no sirve de antesala de acceso sino de estancia privada, sólo la servidumbre de vistas le hace participe de la calle.

La vegetación actual, laureles podados, boj, arbustos y plantas de flor de temporada, no tiene valor, pero hace referencia a la tipología del renacimiento. La plantación que se hacía en estos jardines eran setos de santolina o romero en el siglo XVI y a partir del XVII se generalizó en toda Europa el uso del boj. En el centro y puntos significativos se plantaban arbustos o árboles de pequeño tamaño que se solían podar decorativamente y flores en el interior. Los bordes de los cuadrados y planteles se hacían con madera o ladrillo, los suelos eran de arena, o ladrillo.